

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **84/2024 Mozioa, urriaren 14koa, lanbide arteko gutxieneko soldataren inguruan dauden errenta baxuenen tributazioa murrizteko**

Arabako Batzar Nagusi hauetako Ogasun, Finantza eta Aurrekontu batzordeak, 2024ko urriaren 14an egindako bileran, mozio hau onetsi zuen:

84/2024 Mozioa, urriaren 14koa, lanbide arteko gutxieneko soldataren inguruan dauden errenta baxuenen tributazioa murrizteko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote gainerako euskal erakundeekin batera jarrai dezala lanbide arteko gutxieneko soldataren inguruan dauden errenta baxuenen tributazioa murrizteko hasitako lanarekin.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote lehentasunez bultza dezala Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 102. artikuluko a) eta b) letrak aldatzea, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoan harmonizatuta, lan-etekinengatiko errenta-aitorpena nahitaez aurkeztu behar den atalasea handitzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 14a

*Lehendakaria*

*IRMA BASTERRA UGARRIZA*